

Europako Euskal Etxeen II. Euskarazko Podcast lehiaketa

Madril eta Valentziako Euskal Etxeek atsegin handiz aurkezten dizuegu Europako euskal etxeek antolatzen duten Podcast lehiaketaren bigarren edizioa.

Euskal diasporako euskaldunei eta Euskal Herritik kanpo euskal etxeetan, hizkuntza eskoletan, irakurlegoetan eta abarretan euskara ikasten dutenei zuzendutako lehiaketa da. Lehiaketa honen helburua ikasleen eta euskaldunen artean euskararen erabilera eta zabalkuntza sustatzea da.

Anima zaitetzte, pozik jasoko ditugu munduko edozein lekutatik bidaltzen dizkiguzuen podcastak

Besoak zabalik itxarongo diegu.

Animatu eta parte hartu!

Euskal Herrian eta munduan euskaraz bizi gaitezen!

Hona hemen Lehiaketaren Oinarriak:

1. Deialdi honetara bakarka edo taldean eginiko podcastak aurkeztu daitezke. Euskaraz eta originalak eta inon argitaratu gabeak. Baldintza hauetakoren bat bete ezean, lehiaketatik kanpo geratuko da/dira egileak. Epaimahaiak, epaia publiko egin eta gero, frogatuko balu saritutako lanak ez duela baldintza horietako bat betetzen, jasotako saria itzuli beharko du/dute egileek.
2. Lehiaketa honek 2 kategoria izango ditu:
 - Euskara ikasten ari diren pertsoentzat.
 - Euskara normaltasun osoz erabiltzen duten euskaldunentzat.
3. Podcasten gaia librea izango da, eta gutxienez 5 minutu eta gehienez 15 minutu iraungo dute.
4. Lanak posta elektronikoz bidaliko dira izenburu edo lelo batekin. Mezuan, kategoria, izen abizenak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa ipiniko dira baita ere. Podcast-ak Wetransfer bidez **gurelehiaketak@gmail.com** posta elektronikora bidaliko dira eta gaian: **"II. Euskarazko Podcast lehiaketa"** jarriko da. Aurkezteko **epea 2024ko ekainaren 10an amaituko da.**
5. Valentziako eta Madrilgo Euskal Etxeetako irakasleek osatuko dute epaimahaiak. Epaimahaiaren irizpidea apelezina izango da eta saria, bere 2 kategorietan, hutsik gera daiteke. Lehiaketaren antolatzaileak II. Podcast lehiaketan aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea jasotzen du.
6. Modalitate bakoitzeko saria Etxepare Euskal Institutuak emandako euskarazko liburu eta ikus-entzunezko material sorta bat izango da.

7. Lehiaketaren irabazleak ekainaren 21an jakinaraziko dira. Madrilgo eta Valentziako Euskal Etxeetan aldi bereko bi Sari Gala ospatuko dira egun horretan.
 8. Ez dira eduki iraingarri, errespetorik gabeko edo erasotzailerik onartuko. Jasotako lanen bat ez egokitzak hartzen bada lehiaketatik kanpo geldituko da.
 9. Hizkuntzaren egokitasuna, originaltasuna, sormena eta lanaren kalitate teknikoa baloratuko da.
 10. Lehiaketan parte hartzeak zuzenean oinarrien onarpena dakar.
-